

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Baigorri



Aurkibidea

Udalerria: Baigorri

Sarrera



Nafarroa Behereko herria da, lurralde osoko zabalena dena azalerari dagokionez, Baigorriko Kantonamenduaren hiriburua da. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean, Bidarrai; ipar-ekialdean, Arrosa; ekialdean, Irulegi; hego-ekialdean, Anhauze; hegoaldean, Banka; eta, mendebaldean, Izpegi mendatea gurutzatuz, Erratzu (Baztan). Baigorri ibai eta gorri hitzen lotunea da.

- **Biztanleak:** 1.585
- **Euskaldunak:** %53,74

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **17**
- Zintak: **17**
- Pasarteak: **66**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **65**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- IKER taldea
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak

Maddalen Errotabehere (1973)



Maddalen Errotabehere,, 1973an jaio zen. Baigorri bizi izan da, familiako baserrian, 20 urte zituen arte. Donibane Garazin lizeoan ikasi zuen eta gero Tarbesen, goi-mailako ikasketak egin zituen. 2005ean, Baigorriko ikastola sortu zuten eta bera da ikastolako zuzendaria. Baigorriko ikastolaren sorreraz, garapenaz eta funtzionamenduaz hitz egin du.

Jean Goñi (1949)



Baigorriin jaioa, ama Iruritakoa zuen (Nafarroa); ez zuen aitarik ezagutu. 9 urtera bitarte lehengusuekin bizi izan zen Jean, seme bakarra; amak hotel batean egiten zuen lana. Gero, ama ezkondu egin zen (gizona Hazparnekoa zen eta bi alaba zituen) eta Baionara joan ziren bizitzera. 14 urte arte ibili zen eskolan eta ondoren fruta biltegi batean egin zuen lana. Futbolean, pilotan eta bizikletan ere ibili zen. 21 urterekin (1970) Ameriketara joan zen; bi osaba zituen Bakersfielden. Egun gutxi egin zituen artzain eta San Franciscora joan zen baratze-lanetara. San Rafaelen baratze-negozioa erosi zuen gero. Lau urteren buruan Euskal Herrira bueltatzea erabaki zuen: Baionan soldatzaile-ikasketak egin zituen, eta bazuen lanerako aukera, baina Amerika nahiago zuela konturatu zen eta 20 hilabeteren ondoren San Franciscora bueltatu zen. San Brunon baratze-negozioa erosi zuen eta hori izan du bizibidea. Bakersfieldeko emakume batekin ezkondu zen eta bi alaba izan zituzten. San Franciscoko euskal etxearen sortzaileetako bat da eta mus txapelketetan parte hartzen du.

Jean Haritxelar (1923-2013)



Irakaslea izan zen 1952tik 1959ra Ageneko lizeoan. Letretan doktoretza lortu zuen 1969an Sorbonako Unibertsitatean (Paris), Etxahun olerkariaren inguruko bi lan aurkezturik: "Le poète Pierre Topet-Etxahun" eta "L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxaun". Bordeleko Unibertsitatean Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedraduna izan zen 1962tik 1986ra. 1962an Baionako Euskal Museoko buru hautatu zuten. Urte horretan ere, Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen. 1988an Euskal Herriko Unibertsitateak "Doktor Honoris Causa" izendatu zuen. Euskaltzaindiaren presidentea izan da 16 urtez, zehazki 1989tik (Luis Villasanteren ordezk) 2005 arte, Andres Urrutiak ordezkatu zuenean. 2004an Manuel Lekuona Saria jaso zuen. Baigorri jaioterriko auzapeza izan zen 1971tik 1980ra.

I

BAI-001 Hizlari ezezaguna

Baigorriko gizonezkoa. Mahastien inguruko azalpen sakonak ematen ditu. Mahatsa nola zaindu, ardoa nola egin, eta abar.

BAI-004 Hizlari ezezaguna (1960)

BAI-005 Hizlari ezezaguna (1922)

BAI-006 Hizlari ezezaguna (1943)

BAI-007 Hizlari ezezaguna (1943)

BAI-008 Hizlari ezezaguna (1960)

BAI-009 Hizlari ezezaguna (1922)

BAI-010 Hizlari ezezaguna (1922)

BAI-011 Hizlari ezezaguna (1922)

BAI-012 Hizlari ezezaguna (1922)

BAI-013 Hizlari ezezaguna (1946)

Emile Larre (1926-2015)

Baigorriko Bastida auzoan jaio zen laborari etxe batean. 11 urte zituelarik Uztaritzeko Seminario ttipirat igorri zuten (1937) eta Piarres Lafitteren ikaslea izan zen han (eragin handia izan zuen honek Emile eta garaiko beste hainbatengan: "Lafitten umeak" deitzen ziren). Uztaritzetik Maulera igorri zuten irakasle-lagun urtebeterako (1944). Mauletik Baionako apezgaitegi nagusira (1945-52). 1951an apeztu zen, Baionan eman zuen bere lehen meza eta bere sorterrian, Baigorriin, ondokoa. Hazparnen bikario (1953), Donibane Garaziko Maiorga eskolan irakasle (1954-56), Urruñako bikario (1956-1962), Hazparneko misio-taldekide (1962-69), Aiherrako erretore (1969-80) eta Irisarrin erretore (1980az geroz) izan ditu apaiz-langintzak. Donibane Garaziko apez etxean, erretreta hartuz geroztik. Herria astekariko zuzendaria 1969tik, eta editorialista ere bai. Artikulu ugari idatzi du Gazte, Gogoa, Gure Herria edo Herria bezalako agerkarietan. Euskaltzain oso izendatu zuten 1975an. Pilota eta bertsolaritza, bere beste zaletasun handiak. Bertso-jaialdi eta txapeketen antolatzaile izan da eta epaile ere bai zenbaitetan. (Bertsulari.com eta beste iturri batzuetarik jasotako informazioaz moldatutako biografia).



Pierre Minjonnet (1895)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 18 urte zituen grabaketa egin zitzaionean eta unibertsitatean zegoen ikasketak egiten. Aita Baigorriin jaioa zen, ama, aldiz, Argentinan. Euskalkia: mendebaldeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.194 eta 2.195

Genevieve Oronoz Veva (1925)



Ezkonduz geroztik lehenengo Arretche eta gero Fialho. Baigorrin sortua, aita bertakoa zuen, Bankakoa, eta ama Eskiulakoa (Zuberoa). Aita Ameriketan egona zen, Montanan artzain (1890etik 1910era). Sei haurridetan bosgarrena, Genevieve Bankan ibili zen eskolan 14 urtera arte, eta baserriko lanetan ondoren (aita hil zen eta anai zaharrenak II. Mundu gerlara eraman zituzten soldadu). Auzokoa zen Victor Arretcherekin ezkondu zen (Bankakoa, 1948an Wyomingera joan zen eta 1950ean Fresnora); alaba bat izan zuten Euskal Herrian eta gainerako biak Ameriketan jaio ziren, Huronen (Kalifornia); guztiei hitz egin zieten euskaraz. Arrantxo batean egin zuten lana, Los Bañosen Wool Growers euskal hotela erosi zuten arte, hamar urtez izan zutena (senarra Euskal Herrira bisitan joan eta hil egin zen, eta hotela saltzea erabaki zuten). Bigarrenez ezkondu zen, Henry Fialho portuguesarekin. Ehun urte betetzear zituela elkarrizketatu genuen Genevieve, Los Bañoseko zahar etxe batean. Bittor semea ere elkarrizketatu genuen, toki berean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Kantonamenduko lehena oinarritzko eskolan (BAI-002/001)

Izen-abizenak, jaioteguna. Baigorrin jaioa. Aita jostuna, etxekoa. Ama lholdikoa. Bi euskalki ziren etxean. Amatxi errientsa (maistra) zuen. Lehen eskola ondo igaro zuen, kantonamenduko lehena izan zen.

2. Akizera barnetegira eta Baionara eta Mont-de-Marsan-era irakasletza ikastera (BAI-002/002)

Akizera joan zen "école supérieure" batera. Gero 1940an "école normale"ra, irakasletza ikastera, Baionara lehendabizi eta Mont-de-Marsan-era gero. Bi urte egin zituen azkenengo hiri honetan.

3. Historia irakasle gogoangarria (BAI-002/003)

Mont-de-Marsan-en historia irakasle ona izan zuen. Erresistentzian sartuta zebilen. Gerra ostean Bordeleko prefeta izango zen. Oso harreman ona izan zuen beti.

4. Paristik Madrilera espainieraz trebatzera (BAI-002/004)

Tolosan egin zuen urte bete "école supérieure"an. Liberazioa etorri, Parisera joan (1945) eta hango goi-eskolan sartu zen. Espainola aukeratu zuen

irakasgai eta hizkuntza horretan trebatzeko, Madrilen egon zen urtebetez. Han baigorriar bat aurkitu zuen, Madrilgo lizeoko burua, hain zuzen. Parisera itzuli eta irakasle titulua lortu zuen.

5. Tesia euskal gaiaz egiteko asmoa (BAI-002/005)

Agen hirira joan zen irakasle, zazpi urtez egin zuen lan hango lizeo batean. Tesia egiteko gogoa sartu zitzaion, eta euskara etorri zitzaion burura. Mintzatzen zen baina ez zegoen alfabetatua. René Lafon jauna zen euskara katedratikoa Bordelen eta harengana jo zuen. Beso-zabalik hartu zuen. Lehendabizi euskaraz trebatzeko eskatu zion eta Belloc-eko(Lapurdi) fraideen testuekin hasi zen

6. Etxahun Barkoxekoaren arrastoa jarraitzen (BAI-002/006)

Aita Piarres Lafitte ezagutu zuen orduan. Hainbat liburu eman zion irakurtzeko, tartean Aita Lhande-ren eta Aita Larrasquet-en artean Etxahuni buruz eginikoa. Orduan jakin zuen Etxahun preso egona zela Agen-en edo inguran. Artxiboan izandako gorabeherak.

7. Mitxelena eta Lafitte tesiaren epai-mahaiko (BAI-002/007)

Etxahuni buruzko bi tesi egin zituen, bata Etxahunen bizitzaz eta bestea bere obraz (edizio kritikoa). 1969an irakurri zituen Bordelen. Lafitte, Mitxelena eta Lafon izan ziren epaimahaiko, besteak beste. Ordu asko iraun zuen ekitaldiak. Tesia egiteko CNRSeko ikertzaile gisa egin zituen hiru urteak baliatu zituen. 343 dokumentu berri aurkitu omen zituen tesi horrekin ari zelarik, Lafittek jakinarazi zionez.

8. Lafonen hurrengoa Bordeleko unibertsitateko katedran (BAI-002/008)

1969an Lafonek erretreta hartu zuen Bordeleko euskarazko katedran eta berak bete zuen haren lekua. Hamazazpi urte egin zituen lan horretan, 1986an erretreta hartu zuen arte. 23 urte darama erretretan. Anartean, 1949an ezkondu zen. Tesira itzuliz, André Martinet hizkuntzalari ospetsuarekin negoziatu zuen bi tesiak Etxahuni buruz izatea. Baigorriko euskararen azterketa egingo zuela agindu zion berak, Haritxelarrek, baina ez du hitza bete.

9. Baionako Museoko zuzendari (BAI-002/009)

Baionako Museoko zuzendari izatea proposatu zioten aurrekoa zendu zenean. Lafitte-k idatzia zuen aurrez artikulua zorrotz bat zuzendari euskalduna eskatuz. Izendapenaren gorabeherak. Orduan aldatu zen Biarritzera familiarekin.

10. Baionako Museoa ikerketa-leku (BAI-002/010)

27 urte egin ditu Baionako Museoko zuzendaritzan. Biblioteka sendoa eraikitzen ahalegin handia egin zuen. Hainbat artxibo ere sartu zituen. Manu Sota-ren liburutegia eskuratzea ere lorpen handia izan zen. Ikerketarako erreferentzia inportante bihurtu da museoa.

11. Grenet alkatearekin harreman zuzenak (BAI-002/011)

Jean Grenet Baionako alkatearekin harreman zuzenak izan zituen beti. Museorako langile euskaldunak eskatu zizkion eta amore eman zuen. Manex

Pagola, esaterako. Euskal kulturarentzat toki ona izan da museoa. Behin Grenet biziki haserretu zitzaion Seaskakoak eta gazte-talde bat museoan bildu zirelako. Nola konpondu zen arazoa.

12. Baionako Museoa, euskaltzaleen biltoki (BAI-002/012)

Euskal Museoa euskaltzaleen biltokia hainbat ekimenen sorlekua izan da. Giroa aldatu da harrezkero, eta onerako. 1981ean, Ramuntxo Kanblog euskaraz mintzatzen hasi zelarik, "en français" oihu egin zion entzule batek. Bultzada eman diote zenbaitek (Manex Goienetxe, Xarriton, bera...) hainbat ekimen eta mugimenduri.

13. Bertsolarien gai-jartzaile (BAI-002/014)

Baionan egin zuen lehenengoz gai-jartzaile lana, eta harrezkero sarri egokitu zitzaion lan hori egitea. Xalbadorren adiskide handia izan zen. Behin Xalbadorrekin gertatutako pasadizoa kontatzen du. Bertsolari sakona zen. Bi eratako bertsolariak omen daude. Mattin bertsolariari buruzkoak.

14. Udako Euskal Unibertsitatearen hastapenak (BAI-002/015)

Ikas-en buru ere izan zen. Udako Euskal Unibertsitatearen lehen saioa Donibane Lohizuneko Maurice Ravel Institutuan egin zen. Baimena nola lortu zuen. Bi urteren buruan Landagoienara (Baiona) aldatu zen UEU.

15. Baigorriko alkate (BAI-002/016)

Baigorriarra izaki, Baigorri beti du bihotzean. Sei urtez alkate izan zen, 1971ean hasita. Orduan ikasi omen zuen zer ziren herria, herrigintza eta baigorriarrak. Baserriko bideak, errugbi zelaia, trinketea, eskola... Gauza anitz egin ziren bere garaian.

16. Alkatetzatik dimititu (BAI-002/017)

1980an alde egin zuen Baigorritik. Oso urte zailak ziren. ETA hegoaldean eta Iparretarrak iparraldean. Atentatu-saio batean bi iparretarkide hil ziren, horietako bat Baigorrikoa. Familia ezaguna zuen eta hiletara joan zen. Bere zerrendakideei gustatu ez eta dimisioa eman zuten. Berak ere bai gero. Ordurako bazituen kritikak barnean, herrian denbora gutxi igarotzen zuela eta horrelakoak.

17. Bi zerrenda lehenengo aldiz udalerako (BAI-002/019)

Lehenengo aldiz aurkeztu ziren bere garaian bi zerrenda Baigorriko herriko etxerako. Lehenago zerrenda bakarra beti.

18. Euskaltzain eta euskaltzainburu (BAI-002/020)

1962an egin zuten euskaltzain oso. Iratzeder ere egun berean izendatu zuen. Euskaltzain Buruorde hautatu zuten geroxeago eta Euskaltzainburu azkenik 1989an. 2004an utzi zuen kargua. Orain "Euskaltzainburu ohia" da.

19. Euskaltzaindiaren lanak (BAI-002/021)

Euskaltzaindiaren lan nagusiak aipatzen ditu: Orotariko Hiztegia, Gramatika, Hizkuntz Atlas, Onomastika liburuak, Literatura...

20. Euskaltzainen eta euskaltzaleen maila akademikoaren gorakada (BAI-002/022)

Bera eta Mitxelena ziren doktore bakarrak Euskaltzaindian euskara gaiez. Orain, Literatura sailean, 14tik 13 dira titulu horren jabe. Doktorego tesien epaimahaiko izan da usu eta jabetu da nolako aldaketa gertatu den euskararen munduan.

21. Iparraldeko unibertsitate campusa (BAI-002/023)

Euskal Herriko Unibertsitate Campus ezberdinak izendatzen ditu. Iparraldekoaz ari da luze. 1981ean eman zitzaion hasiera, Bordeleko Unibertsitatearen baitan.

22. Euskaltzaindia Erret Akademia bihurtu (BAI-002/024)

Aurrerakada ikaragarria egin du Euskal Herriak. Franco hil eta hiru hilabetera izendatu zuten Euskaltzaindia "Erret Akademia". Gero autonomiak eta koofizialtasuna sortu ziren. Euskal Herri berri bat sortzen ari da.

23. Pozik aro itxaropentsu hau sortzen lagundu duelako (BAI-002/025)

Iparraldean ere ikusten den Euskal Telebista sortu zuen gobernu autonomoak. Harremanak badira Hegoaldeko eta Iparraldeko erakundeetako kultura arduradunen artean. Hegoaldeko gobernua aldatu den arren, gauzak ez dira ziurrenik asko aldatuko. Eta ona da alderdi batentzat oposiziotik pasatzea. Pozik eta harro dago garai hau ezagutu duelako eta hona heltzeko bere laguntza ttipia eman duelako.

24. Fedez eta esperantzaz beteta euskarari dagokionean (BAI-002/026)

Baikorregia dela esaten diote (euskarari buruz), baina berak badu fedea eta esperantza. 1800. urtean 450.000 euskaldun inguru omen ziren eta orain, berriz, 700.000. Arazoa da gutxiengoak garela. Iparraldean beherakada handia izan da, egia da, baina gorako bidean daude. Ikastolak gauza biziki ederra dira, etae eskola publikoa, irratia, Herria aldizkaria eta abar beharrezkoak euskarak aurrera jo dezan. Giro hori sendotuz joango omen da, ikastolako umeak guraso bihurtzen direlarik ikastolara bidaliko dituzte beren haurrak. Fedez eta esperantzaz beteta dago bera.

25. Euskalkiak beharrezkoak dira, batua ere bai (BAI-002/027)

Euskalkiak beharrezkoak dira. Berak Baigorri ez du batuan egingo. Zuberoan pastorala galtzear egon zen, eta orain badira hamar pastorgile. Arabiera dialektala mintzatzen da leku gehienetan baina batua dute gauza ofizialekoak. Zergatik ezin da berdintsu izan hemen? Euskara batua ez dago oraino guztiz egina. Ikasketetarako ere euskalkiak jakitea beharrezkoa da, literatura zaharra euskalkietan egina delako. Tokian tokikoak segituko duela uste du. Baina indarra egin behar da hizkuntza komuna bultzatzeko.

26. Emile jaio zen eguna (BAI-003/002)

Baigorri hiru eliza dira; bere familia, Bastidakoa, Urdozera joaten zen mezara. Aita faltatu izan batean "aretxeen batzen" gelditu zela esan zuen osabak, umorez. Emile Larre jaio zen eguna.

27. Baigorrik hogeita bi auzo (BAI-003/003)

Bastida auzoa nolakoa den. Baigorrik 22 auzo ditu. Horietako batzuen berri ematen du. "Gaskoin karrika" deitzen zioten karrika bati, erdaldunak ere bazirelako.

28. Bastida eta Urdozen arteko auzolana (BAI-003/004)

Urdozen zen eliza baina beren auzoak ere, Bastidak, bazuen bere nortasuna. Urdoztarrak ikusiak ditu Bastidara auzolanera joanda. Gero ostatuan afari-merienda txikia eta mus partida egiten zuten elkarrekin.

29. Kantari ezezaguna, etxekoa (BAI-003/005)

Etixeratzeko orduan, bidegurutzean, urdoztarrak eta bastidarrak kantuan aritzen ziren. Behin Emileren etxetik goxoki kantatzen zuen norbaiten ahotsa entzun zuten; ezin igarri nor zen kantaria. Etxeko semea zen, baina ez zuen sekula etxean kantatzen. Etxean lana eta lana egin da. Kantuan edo jokoan aritzea denbora galtzea zen. Horrela heziak ziren.

30. Betidanik ezagutu du argindarra (BAI-003/006)

Betidanik ezagutu du argindarra. Nori esker azaltzen du. Oso goiztiarrak izan ziren.

31. Emile errotik laboraria (BAI-003/008)

Errotik laboraria izan da Emile. Orain ere, Donibanen bizi delarik, baratzea du. Nola txukundu zuen abandonatuta zegoen baratzea. Tailua (sega) erabiltzen trebea izan da, hiru anaietarik onena omen zen gaztetan.

32. Apaizgai baten kezkak (BAI-003/009)

Apaizgai izatea erabaki zuelarik, bere buruhauste handiena zen seme nagusia izaki nola ez zuen etxeko segida hartuko. Apaizgai zelarik udako oporretan lanean aritzen zen etxean.

33. Uztaritzeko seminarioan apaizgaiak eta bestelakoak nahasi (BAI-003/010)

Uztaritzeko seminarioan hirutik bi apaizgaiak ziren eta beste herena familia oneko semeak hara estudiantzera joanak.

34. Herri-prestakuntzarik gabe apaizten ziren (BAI-003/011)

Latina eta greziera jota ke ikasten zuten seminarioan. Frantsesa eta humanitateak ere bai. Baina ez zuten prestakuntzarik herriarekin harremanetan jartzeko.

35. Aita Lafitte euskarazko irakasle (BAI-003/012)

Pierre Lafittek latina eta greziera ematen zieten, eta eskolaz kanpo euskarazko klaseak.

36. Emileren gaztetako literatur sariak (BAI-003/014)

Pierre Lafittek euskarazko klaseak ematen zizkieten eskola orduetz at. Idazketa sari bat irabazi zuen garai hartan Emilek. Baina ordurako bazuen beste sari bat irabazia, Euskalzaleen Biltzarrak antolatutakoa. Margerite izeneko baigorriar batek irabazi zuen eta Emile bigarren gelditu zen.

37. Lafitteren denborako apaizen euskalzaletasuna (BAI-003/015)

Lafitte eta haren denborako zenbait oso euskaltzaleak ziren baina erdaraz egiten zuten beren artean eta jendearekin ere erdaraz egiteko ohitura handia zuten. Berarekin ere, Herria aldizkarian laguntzaile gisa hartu zuelarik, erdaraz gehiago egiten zuen euskaraz baino.

38. Noiz hasi da euskara plazaratzen? (BAI-003/016)

Eurek hasi ziren euskara plazaratzen. Ximun Haran eta Sarako beste pilotari batzuek pilota (Joko Luze, Errebote) txapelketa bat antolatu zuten. Hauez gain, Xarriton, Bidegain, Mixel Labeguerie, Ettiene Salaberry izan ziren beren ereduak. Geroxeago etorriko zen Enbata mugimendu politikoa. Lehenago ere plazaratzen zen euskara baina laborarien artean.

39. Luzaideko euskaldunak erdaraz (BAI-003/017)

Luzaidera joan ohi da astero hegoaldeko egunkariak erostera, eta sufritu egiten du. Berak euskaraz egiten du mundu guztiarekin baina ikusten du luzaidetarrak erdaraz ari direla beren artean.

40. Dantzan ikasten seminarioan (BAI-003/019)

1945-46 urteetan ibilia da bera, apaizgai zelarik, Barkoxeko plazan dantzan sotanarekin. Apaizgaiak zituzten irakasle, garaztarrak batez ere. Baionako seminarioan jolas orduan ikasgelan bertan aritzen ziren 120 lagunetik gora, berotze aldera, hotz handia egiten baitzuen.

41. Udalekuetan apaizgaiak dantza irakasle (BAI-003/020)

Barkoxeko plazan dantzatu izan zuten apaizgaiak. Bera ez zen joate udalekuetara, etxean lan egin behar zuelako, baina bere ikaskideek dantzan irakasten zieten udalekuetako mutil guztiei.

42. Pilotazale ere bai (BAI-003/021)

Pilotazaletasuna ere seminarioan atxiki dute. Pilota taldea zuten eta tartean baziren oso onak, Erramuspe esaterako.

43. Ibarnegarai politikoari pilotak eskatu (BAI-003/023)

Txapelketa antolatu zuten baina pilota txarrak zituzten eta Ibarnegarai-ri eskatu zizkieten; "Ministre dela famille" izan zen Petainekin, Ez zekiten deus politikaz. Honek sei pilota igorri zizkien.

44. Euskaldunek jokalekuko alderik onena (BAI-003/024)

Joko Luze edo errebotean aritzen ziren jolas-ordu guztietan. Bi alde ditu jokalekuak, eta euskaldunek alde onena hartzen zuten eta txarrena biarnesei uzten. Euskaldunek eskuz aritzen ziren normalean eta bestaldekoek tresnaz.

45. Pilotan ibilita gero lokartu (BAI-003/025)

Behin, pilotan ibilita gero, lokartu egin zen eta klasea pasatu zitzaion. Irakasle biarnesarengana aurkeztu zenean ez zion errietary egin.

46. Apaiz egin aurreko kezka (BAI-003/026)

Beste garai bat zen. Orduan elizak indar handia zuen. Apaizgaia izatea ohorea zen. Dena dela, kezka beti zuten. Apaiztu aurretik astebeteko erretiroa egiten zen eman behar zuten pausoaz gogoeta egiteko.

47. Familiak bultzatutako apaizak (BAI-003/027)

Baziren apaiztu eta berehala uzten zutenak ere. 1970tik aurrera askok utzi zuten, giroa arras aldatu zelako. Elizak ere konprenitu du hori. Familia batzuetan haurrak bultzatu egin izan dituzte apaiz izatera, amak izan du bokazioa.

48. Emileren apaiz ibilbidea (BAI-003/030)

Hazparneko bikarioa izendatu zuten 25 urterekin. Oso gustura zegoen, baina Garaziko Laborantza-Eskola sortzera joateko deia izan zuen eta gogo txarrez onartu zuen. Handik hiru urtera, bikario lanera itzuli zen eta harrezkero Urruñan, Aiherran, Irisarrin eta Donibane Garazin egon da. Asko ibili da herriz herri predikari gisa.

49. Eliza harroegi ibilia da (BAI-003/032)

Elizak badu indarra oraindik. Orain laikoek dute pisu asko. Eliza harroegi ibilia da eta ongi etorri zaio apaltasun amifi bat.

50. Apaizak ezkondu ala ez? (BAI-003/035)

Formazionean irabazi behar dute gaurko apaizek. Apaizak ezkondu ala ez?, ez du soluzioa ezkontzan ikusten. Jesu Kristoren erlijioak dena ematea eskatzen du. Protestanteak eta ortodoxoak ezkontzen dira baina hala ere badute krisia.

51. Iratzederrek bezala bi jainko, jainkoa eta euskara (BAI-003/036)

Lafittek erakutsi zion euskara maitatzen. Iratzederrek esaten zuen bi jainko zituela: jainkoa eta euskara. Emilek ere berdintsu sentitzen du. Gutxi edo asko, baina gero ere izango dira euskaltzaleak.

52. Lafitte-rekin harreman aberatsa (BAI-003/037)

Lafitte maila handiko gizona zen, euskal gramatika eta beste obra batzuen egilea. Harekin ikasi zuen euskara maitatzen. Berak ere asko lagundu zion Lafitteri. Bera ez da izan haren mailakoa baina iraun egin du ahaleginean.

53. Euskara batuaren zailtasunak Iparraldean (BAI-003/038)

Borroka handia egin behar izan zuen Emilek euskara batuko ortografia Herriaren sartzeko. Bazen guztiz aurka zegoen jendea, eta baita azkarregi joan nahi zuena ere.

54. Arantzazuko Biltzarraren garrantzia (BAI-003/039)

1968ko Arantzazuko Biltzarra oso inportantea izan zen. Gero irizpideak aplikatzean malgu jokatu beharra zegoen. Elizako testuez. Aita Martxelen Bibliaren itzulpenaz.

55. Militantziarik gabe ez ginen honaino helduko (BAI-003/040)

Bertsolariak asko maite ditu. Bada zenbait Xalbador eta Mattinez aparte ezer entzun nahi ez duena. Baina gero etorri dira beste batzuk, eta onak gainera. Mundu guztiak konprenitzen du bertsolarien euskara. Militantziari esker heldu gara orain gauden lekura. Beren Baigorriko etxean ilobek euskarari atxikitzen diote ikastolari esker.

56. 'Herria' aldizkaria eta publizitatea (BAI-003/042)

'Herria'k publizitatea behar du bizitzeko. Iragarki "legalak" frantsesez ipini ohi ziren. Hegoaldean euskarak laguntza instituzional handia du, Iparraldean, aldiz, miserableak. Baina emeki-emeki ari dira legezko iragarkiak ere euskaraz sartzen.

57. Hegoaldeko aldizkariak 'Herria'ri irakurleak ebazten (BAI-003/044)

Hegoaldeko kazeta bat (Tipi-Tapa) sartua da Senpere eta Ainhua aldean. Diru publikoz hornituak, lehia egiten diote Herriari, irakurleak ebazten dizkiote, eta gaizki iruditzen zaio. Ia diru publikorik gabe ari da euskara Iparraldean.

58. Euskarak ez al du merezi diru publikorik? (BAI-003/045)

Garaziko hainbat eliza txukundu dituzte diru publikoz. Ez al da inportanteagoa euskara bultzatzeko dirua jartzea?

59. Alkhat eta Arrosagarai bertsolariak (BAI-003/046)

Emilek lan handia egin du Alkhat eta Arrosagarai bezalako bertsolariak aurrera ateratzen. Bakoitzaren ezaugarriak zeintzuk diren aipatzen du.

60. Hernandorenak antolatu zuen Urruñako bertso-saio arrakastatsua (BAI-003/048)

Euskarari nola atxiki zitzaion. Urruñara joan zen bikario. Herri euskalduna eta ederra. Hernandorena giputza Donibane Lohizunen bizi zen, haginlaria lanbidez. Emileri esan zion bertso-saio handi bat antolatzen laguntzeko, eta baita antolatu ere. 700 lagun sartu ziren 300 kabitzen ziren lekuan. Lau onenak Parisera joan ziren kantatzera Basarri, Uztapide, Xalbador eta Mattin izan ziren. Orduan sartu zen Emile bertso munduan.

61. Miraria da noraino heldu den bertsolaritza (BAI-003/049)

Euskaltzaindiak antolatzen zituen txapelketak. Gero beste esku batzuetan utzi zuen. Mirakulua da noraino heldu den bertsolaritza.

62. 'Xalbador'ren balizko potoa eta txapelketetako gorabeherak (BAI-003/051)

Epaile izan zen maiz Emile bertsolari txapelketetan, Mixel Itzainarekin batera iparraldetik. Xalbadorrek emazte hilaren arropari botatako bertsoetan potoa ikusi zuen hegoaldeko zenbaitek, baina hitza ulertu ez zutelako izan zen. Uztapidek irabazi zuen txapela eta Basarri, ezustean, Xalbadorren alde agertu zen.

63. Iparraldeak salbatu du urte anitzez Nafarroako txapelketa (BAI-003/053)

Nafarroako eta Iparraldeko bertsolariek txapelketa bakarra egin zuten urte anitzez. Nafarroan ez zen maila handirik eta Iparraldera joan ohi ziren txapelak. Iparraldeak salbatu zuen neurri batean Nafarroako bertsolaritza. Emileri fama txarra jarri zioten, iparraldekoen alde egiten zuela egotziz, eta hori dela eta utzi egin zion epaile izateari. Geroztik Nafarroako mailak gora egin du bertso-eskolei esker.

64. 'Xalbador'ren eta Mattinen ondorengo bertsolaritza, biziki zaila (BAI-003/054)

Ernest Alkhatek esaten zuen erreka zabaleko zubi txikia izan dela beren bertsolaritza. Xalbadorren eta Mattinen ondorengo bertsolaritza biziki zaila zen.

65. Fanatismo apur bat Iparraldeko bertso-txapelketan (BAI-003/056)

Fanatismo amiñi bat ikusi du Iparraldeko bertso-txapelketan. Bazen txalo egitera bakarrik joandako jendea. Hegoaldean alimaleko indarra hartu du bertsolaritzak. Apalago dabil Iparraldean. Zenbaitek pentsatuko du Emile mundu horretan sartu zela bere burua nabarmentzeagatik baina ez da horrela. Euskaragatik ari da, eta jainkoagatik. Euskara eta jainkoa bere lema, Iratzederrek bezala.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com